



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “ELKARGUNEA FUNDAZIOARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK 2001-2002” TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, “Elkargunea Fundazioari emandako dirulaguntzak, 2001-2002” txostena mamitu du. Txostena HKEEren Osokoaren kideen gehiengoarekin oniritzi da.

Fundazioak dirulaguntzak jaso zituen Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzarengandik. Emakidak 23 mila eurokoak izan ziren 2001ean eta 12 mila eurokoak, 2002an; gerora, hurrenez hurren, 11 eta 6 mila euroko balioabetzeak gertatu ziren.

HKEEren aztergaia honako hau da: dirulaguntzen araudi erregulatzaileria; Elkarguneari egindako ekarpena bera; eta gauzatutako jardueraren justifikazioa.

AFAk egindako ekarpenei dagokienez, HKEEk adierazi du ez dela eskabidea balioztatu araudian jasotako oinarri-arauen arabera eta ez dela justifikatu eskabide hori aurkezpenarako ezarritako epeaz kanpo oniritzi izanaren zergatia. halaber, justifikatutako jardueretan ere azaleratu dira hainbat ezbetetze, liburuen argitalpena hitzaldi baten transkripzioarekin aldatu izana, esaterako.

BFaren laguntzei dagokienez ere, hutsak aipatu dira. Horietako zenbait Aldundiari ezargarriak, esate baterako, emandako laguntzaren kuantifikazioan justifikazio eza. Fundazioaren egiaztagirietan hutsak azaleratu dira jardueren justifikazioetan, liburuen izenburuetan aldaketak eta diruz lagundutako hitzaldiak.

Eusko Jaurlaritzak 2002ko urtealdirako emandako 6 mila euroko dirulaguntzari – horietatik 5 milioi euro jada ordainduak direla- itzulera espediente bideratu zaio, Fundazioak emakidaren betekizunak ez dituela bete uste izateagatik. Fundazioak errekurritu egin du ebazpen hau.